

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2026-04-13

BILERA ZENBAKIA: 4

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea), Erkuden eta Mainer.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Batzordeko korreoa:

ongizate@itsasondo.eus

Ikastaroa:

“Jatorri atzerritarreko herritarrei harrera herri txikietan” saioan parte hartu du Bihotzak; herri txikietako harrera proiektu ezberdinak landuko dituzte. 4 saio dira eta Bihotzak parte hartuko du online. Bertan zabaltzen duten informazioa batzordeko korreora bidaliko du.


Urteko plangintza:

Erkudenek 2026.urteko plangintzaren eskema sortu du, eta bera jarraitu dugu urteko proiektu eta ekintzak kokatu eta ardurak banatzen hasteko.

Hurrengo ekintza “Gurpilen ganean” izango da. Herri Azoka aprobetxatuko dugu; beraz, martxoaren 8an bizikletak, patinak, patineteak, babesgarriak etabarrak jasoko ditugu eta konponketaren bat behar izanez gero, txirrindu taldeari proposatuko diogu konpontzen prestatuko ote ziren. Herritarrek hartzeko izango ditugu azokan eta behar ez direnak Caritasera eramango ditugu.

Ekainean, berriz, Harrera Eguna ospatuko dugu, ekainaren 16an. Urtero bezela Bihotzak azken urteko erroldak eskatuko ditu eta hurrengo bileran aztertuko ditugu. Erkudenek Gida txukundu eta eguneratuko du.

Azaroaren 27an, jostailu bilketa eta baserritar arropa azoka antolatuko ditugu.



ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Ikastaroko informazioa korreora		Bihotza
Txirrindulariei konponketak		Erkuden
Mahai baten eskaera (+post it)		Maidar
Azokarako kutxak Jabiri eskatu		Maidar
Daneli azokan berri eman		Elena
Azokan laguntzeko ongizate sarean zabaldu		Maidar
Erroldak		Bihotza
Gida		Erkuden
HURRENGO BILERA		
Hurrengo bilera: maiatzaren 11a, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.		